

1824. Mapa: golpear la guadaña / battre la faux / pound the scythe (to)

GALDERA: 41330 ALG: 970; ALEANR: IV, 510



	me(h)atu
	mehaztü
	jo
	aprimatu
	leundu
	agoa atara
	pikau
	pikeu
	pikatu
	pik(h)atü
	piketu

- Segarrozteko, mailuaz segaren xafla jotzea nola esaten den bildu da.

Asteasu: Mallu batekin me-me-me itte ue.

Hondarribia: Jotzian itten da aba lusatu (...) sega joka, 'picar'.

Sara: Meatú ingudian gainian yo eta arriaiakin xorrostu.

Mugerre: Mehatzen da, loditzen baita.

Urketa: Yóiten. Yo beha uzu, mehatu beha uzu sega et xorroxten. Ez tute denek esku kholpe bera, ya, epheile eta epheile bauzu, bat bezian ondotik, zu giderra besoa ze luzetasuna duzun... gainbehea ai bazira denak xeatzen tutzu, itsusi da, behar da bethi arras phartitu. Hobe uzu goiz-goiz, ihitza deno, ihitza yoan eta ezta bardin, eh! Argitu gabe, eh, doi-doi ikhusteko.

Ezterenzubi: Tallu mehátzia edo pikatzia.

Sohüta: Üsü jo eta ez sobea aldin... agei düzü badela zerbait juiten eztenik.